



BILBAO ART DISTRICT-EK ERAKUSKETEN LEHENENGO INAUGURAZIO BATERATUA ANTOLATU DU

Bederatzi arte-galeriak beren azken proposamen kultural eta sortzaileak aurkeztuko dituzte gaur, Bizkaiko hiriburuan aurrendaria den ekimen batean

Euskadiko, estatuko eta nazioarteko 30 artistak baino gehiagok parte hartzen dute erakusketa indibidual eta kolektibo hauetan

Chillida, Nú Barreto, Alejandro Quincoces, Ángela García, Dora Salazar eta Gert Voor in't Holt argazkilaria proposamen honen erakargarritasunaren adibide bat baino ez dira

Larunbatean, urriaren 5ean, bisita gidatuak antolatuko dira artisten presentziarekin, eta musika-ekitaldiak egongo dira Barrutiko kaleetan

Era horretan, Bilbao Art District finkatu egiten da kultura eta sormenaren erreferente gisa, hiriko erdigunean

Bilbo, 2013ko urrilaren 4a. Bilbao Art District galaz jantzi da sasoi artistiko berria hasteko, *“Udazken honetan, busti zaitez kulturaz”* lemapean. Bederatzi arte-galeriak, sormenean eta abangoardian bete-betean sartutako hiri-esparru honetako bihotzean kokatuta, erakusketa bana inauguratuko dituzte aldi berean, Euskadiko, estatuko eta nazioarteko 30 artistaren baino gehiagoren obrak bilduz; artista horiek guztiak benetako maisuak dira askotariko diziplina eta estiloetan.



Hau da hiriko hainbat galeriak aurkezpen bateratu bat antolatzen duten lehenengo aldia, esparru kultural gisa eta jarduera komertzial eta ekonomikoa bultzatzen duten eragile gisa jokatzeko indartzeko xedez. Ekimen honekin, Bilbao Art Districtek bere konpromisoa berresten du, alegia, kalitatezko ekitaldi-egutegi bat hiriri eskaintzeko konpromisoa, Bizkaiko hiriburuak sormenaren eta abangoardiaren erreferente gisa lortu duen erakargarritasuna indartzeko.

Oraingoan, eta erakusketa-areto bakarra izango balira bezala, bederatzigarri galeriak –gaur 22:00ak arte egongo dira zabalik- modu bateratuan antolatu dute beren proposamen berriak abiatzeko ekimena, era guzietako publikoengana zuzenduta. Komisarioek, ohiko bezeroek, kritikariek eta adituek aukera izango dute gozatzeko, hiriko biztanle, familia, bisitari eta turistekin batera, ospe handiko artisten lanaren lagin paregabeek. Aipatzekoak dira, besteak beste, Anselmo Guinea, Eduardo Chillida, Nú Barreto, Alejandro Quincoces, Dora Salazar, Javier Pérez, Ángela García eta Gert Voor in't Holt argazkilaria.

Lankidetzaren publiko-pribatua

Ekitaldiaren aurkezleak izan dira Marta Ajuria, Bilboko Merkataritza eta Turismo alboko zinegotzi ordezkaria, eta Gonzalo Olabarria, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura zuzendaria, ekimenean parte hartzen duten galerien ordezkariekin batera. Horiek guztiek azpimarratu dute lankidetzaren publiko-pribatuak duen garrantzia Bilboren protagonismoa finkatzeko, arte eta kulturaren eremuan aitortutako marka bezala.

Ekimen honetan parte hartzen duten erakusketa-aretoak hauexek dira: Michel Mejuto Galeria, Photo Gallery 20, Rembrandt Galeria, Kalao Panafrican Crations Galeria, Ederti Galeria, Juan Manuel Lumbreras Galeria, Vanguardia Galeria, Windsor Kulturgintza eta Aritza Galeria. Publikoak jakin dezan zein diren ekimenean parte hartzen duten galeria horiek, guztiek turkesa koloreko *ongi etorriko* alfonbra bana jarriko dute sarreran (horixe baita barrutiaren kolore bereizgarria).



Larunbatean, topaketak artistekin eta musika kaleetan

Larunbata ere -urriaren 5a- ekintza ugariko eguna izango da Bilbao Art Districten. Izan ere, bisitari eta artistak elkartu ahal izango dira eta iritziak trukatu, artistekin “*zuzeneko*” topaketak antolatu dituzten bost galerietan. Hori larunbatean izango da, 12:00etatik aurrera. Hala, Photo Gallery 20k Gert Voor in't Holt argazkilariaren presentzia izango du; Kalao Panafrican Creations Galerian, berriz, Nü Barreto pintorea izango da; Juan Manuel Lumbrerasen, Alejandro Quincoces; Windsor Kulturgintzan, Dora Salazar; Vanguardian, Javier Pérez artista; eta Aritzara Ángela García artista etorriko da.

Gainera, barrutiko kaleak zuzeneko musikaz alaituta egongo dira goizean. Herritarrei esparru gehiago uzteko xedez, Juan Ajuriagerra kalea oinezkoentzat izango da 11:00etatik 15:00etara, Errekalde Zumarkalearen eta Heros kalearen arteko tartean. Esparru horretan, jazz musika izango dugu, piano, kontrabaxu eta piano hirukote batekin. Hari-musika maite dutenentzat, berriz, biolin eta arpa bikote batek giroa animatuko du. 12:00etan, Aritza Galeriaren inguruan arituko da (Portuko Markesaren kalea, 14); 12:30ean, Kalao Panafrican Creations Galerian (Arbolantxa kalea, 6); 13:00etan, Vanguardia Galerian (Mazarredo Zumarkalea, 19); eta 13:30ean Juan Manuel Lumbreras Galerian (Hena kalea, 3).

Larunbatean, gainera, Bilbao Art Districten hiriguneak aire zabaleko pintura lehiaketa bat hartuko du Agrupación de Acuarelistas Vascos-Euskal Akuarelarien Elkarteak antolatuta. Ekimena 10:00etan izango da, Isozaki Dorreetan (Elkarbizitza Plaza). Beste alde batetik, Tokyostory *vintage* altzarien dendak Cruz Ugarte artistaren erakusketa bat hartuko du.

“Loreak asfaltoan” argazki-erakusketa

Ekimen honekin batera, Bilboko Argazkigintza Garaikidearen Zentroak –Centro de Fotografía Contemporánea de Bilbao- irekita izango du bere “*Loreak asfaltoan*” erakusketa –“*Flores en el asfalto*”-. Arrakasta handia lortzen ari den



erakusketa horrek izen handiko bost argazkilariren lanak biltzen ditu: Alberto García Álix, Aitor Ortiz, Vicente Paredes, Ernesto Valverde eta Carlos Cánovas. Bilboko Argazkigintza Garaikidearen Zentroa, iragan irailaren 12an inauguratua, Bilbao Art District osatzen duten museo, galeria eta eragile kulturalen taldeari atxiki zaio.

Barrutiko nortasun artistikoaren aldeko bultzada

Bederatzi erakusketa hauen inaugurazio bateratuak agerian uzten du Bilbao Art District proiektuak bere jatorrian -iragan otsailean- adierazi zuen jarraitutasun eta hazkunde bokazioa. Ekimen horren helburuetako bat da Zabalguneko auzoaren eta beraren ingurumarien nortasun artistikoa bultzatzea, kalitatezko eskaintza kulturalaren bitartez, Bilbo sormen-industriaren sustapen eta garapen gune bezala proiektatzeaz batera.

Bilbao Art Districtek barne hartzen du Itsas Museoak, Albia Lorategiak, Kale Nagusiak, Abandoibarra Pasealekuak eta Urkijo Zumarkaleak Ercilla kaleraino mugatzen duten esparrua. Esparru horretan biltzen dira hainbat arte-galeria, liburu-saltzaile, antikuariario, enkante-etxe eta ospe handiko zaharberritzaile, eta Arte Ederren Museoa, Guggenheim Museoa, Itsas Museoa eta Rekalde Aretoa ere bai.